

MAITASUNAK

IRU EGINTZADUN ANTZERKIA

Avelino BARRIOLA'k idatzia

Oarketa: Antzerki onetan arkituko dira erderazko itz batzuek. Baita ere alkar arteko erabiltzeetan Don eta Berori. Batzuek eta besteak aldatu litezke erraz euskera garbira. Bañan esateko erraztasuna ta geienaz entzutekoa galduko luke. Itz eta oitura oiek gure errian barrun sartuak bai daude, ta nere ustez ez dira arrunt, erabat atera bear.

BANAKETA

ANTZEZ NOTIÑAK

Andre Anjela	30	urtekoa
Andre Ilari	45	“
Karmentxo	20	“
Kontxexi	60	“
Andre Kiteri	40	“
Irene	18	“
Paulita	32	“
Neskame bat		
Mirentxu (neskatilla.....)	7	urtekoa
Aizpurua'tar Juan jauna ...	70	“
Pedro	35	“
Xanti.....	28	“
Ziñaldari jauna	50	“
Apaiz jauna	50	“
Erruperto	65	“
Anton zarra	70	“
Idazlari bat		
Don Lukas sendagillea	60	urtekoa
Don Luis sendagillea	30	“

LENENGO EGINTZA

Ziñaldari baten idazkola. Atzian eskui aldera ate zabal bat. Eskuitara mai aundi bat idazkiz dana josia. Ezkerretan, aurre aldean, atea. Exeri-alkiak mai inguruan. Orman bukatu urteko ziñaldari gazteen antzeztia. Ezker-eskuiyak egintarienak

LENENGO IRUDIA

Ziñaldari jauna, Aizpurua'tar Juan jauna, Xanti ta Idazlaria

(Ziñaldaria, Juan jaunaren atzenaia irakurtzen ari da.. Inguruan dauka Idazlaria; aurrian Juan jauna ta Xanti bere idazlaria)

- ZIÑALDARIA “...Nere emazte danari utzitzen dizkat bi milloi pezeta ta etxia bere inguruko lur guziekin. Beste gañeakoak, zortzi milloi inguru, irasi detan Aurtxo-jaso-etxeak -aurren asiloak-biar duen guzia ordaintzeko. Gelditzen danakin, nai det, iru edo lau gazte zintzo, kementsu ta buru dunai ikasmen aundiak, nun nai egiteko urteko laguntza aundi bat ematia... Gazte oyek izan litezke ertilari danetakoak bai ereslari, margolari, idazlari, sendalari ta abar; bañan agergai onak eman ondoren azkartzat ondo ezagutuak”... Onela da?
- JUAN Bai, ongi dago. Orren gain biar diran agiri guziak idatziak daukazkit. Nortzuk gazte oiek azterkatuko dituzten, beren urteko laguntzak noiz arte iraun lezaken, zertaraño luzatu liteken... dana, dana. Ta idatzi onen gain, nere emaztea nere asmo guzien jakiñen gañean dago.
- ZIÑALDARIA Galdeera barkatu nazu... Bañan emazteak, jarraituko duela uste al dezu?
- JUAN Bai; ziur nago. Asieran gaztea bai zan, arin ta txoro artzen zituen nere esanak. Ez bai ziran emakume gazteen, ezta gizon buru-zuri artean ere, gure kaltegarritzat, erabiltzen ziran gogaiak! Bañan orain, biok bat egin gera, ta asmo batean bizi gera. Nere “Aur-jaso-etxeko” aurtxoari on geiena egiten diotena bera da. Ta esaten du, - ta pozik entzuten diot- ez dala aski asiera labur bat ematea, baizik aurtxo oiek iruki biar dirala gazte ondo aziak bear duten guzia ikasi arte.
- ZIÑALDARIA Ori geitxo ere bada, ezer ez duenari egiteko.
- JUAN *(Indarrakin)* Ezer ez duenari...? Geron anaiari! Geron aurrai! Euskotar gaxoai laguntzia geitxo dala...? Egundaño ez! Geitxo ez dalako ikaspide aundiagoak emateko beste asmo ori artu det. Ez da berriya. Diputazioak eta Udalak -Ayuntamentuak- laguntza oiek ematen dituzte, bañan, ain labur! ain dollorkil!... Berekin egin nai duten lan ona, ez da agertzen.

ZIÑALDARIA Geienetan, gazte oiek, beren ernagatik ez dute aurreatzen. Gauza ez diralako... zintzo ibiltzen ez diralako... naiko arreta jartzen ez dutelako...

JUAN Edo, nai eta gogo aundia izan aren bire erdian gelditu diralako. Zer uste dezu, bi edo iru urteko ikasketak bestien gain jarriko dutela gizona?

ZIÑALDARIA Besteen gain jartzea ez da bearrekua.

JUAN Bai; bear bearrekua. Guk bear ditugu, euskotar gizon aundi batzuek, gure abenda altxa, edertu, gallendu ta argitara aterako dutenak. Orain arte, euskotarra ez da agertu euskotartzat. España, Prantzia, Arjentina, Mejiko ta beste zernai aberri, bere egipenen lo estalpetzat artu ditu, ta onela gure aberri txikiya itzalpean egon da. Arjentinan ni, nere kopetako izardiz, eta gorputz guziko kemenez lanian saiitzen nitzanian, esaten nuen sarri: Juan, Juan, euskotar aberriko semea... Zer egiten dek ire aberriagatik? Gutxi... Ta emen jaiotako euskotarren semeak?... Deus ez; eta asko, beren jatorria erakusten lotsatu... Begiratzen nuen ludi guzira ta ikusten nuen, asmakari argienak, jakintza guzietan aurrena agertzen zirala: alemandarrak, englandarrak, laterribatutakoak, pranzetarrak... ta euskotarrak batere ez. Ta esaten nuen, gure abenda argaldua dago, illa dago, ezer ez gera... Bañan gogoraturik, gu, gure lanetan, iñor aña bagerala ta, gaitz izan arren, beste edozeiñek ainbat egin genezakela, apurtxo bat alaitzen nitzan oldostuaz: Ez! Euskadi ez dago illa, baztertua baizik, eta argitara atera bear degu. Gure semeak, aurrian dabilzan gizon ospatsu oyen artean jarri, or iduki, bear duten laguntza guzia emanaz, anai arteko agur beroak bialiaz, beren egipen eta lan gaitzetan txaloz lagunduaz; eta orduan agertuko degu euskotarren aunditasuna.

ZIÑALDARIA Gaitza da. Gure artean, gañera dana egiteko dago: Euskadin ez daukagu Ikastetxe nagusi bat ere.

JUAN Egiya. Ori egin biar degu; ta, guk nai badegu, luzaro gabe izango degu. Bañan izango degunakin ezin gindezke gelditu. Guk ez degu; bañan bai dira... guazen bada diran lekura. Bañan ez ditzagun biali gazteak jateko ere lain ematen ez diotegula; beren sendiak emen, beartsu uzten ditugula. Bestela gertatuko da, egunero agertzen zaiguna: gazte oiek, azkarrak izan arren, ez daude ikaste aundietan jarraitzeko eran, eta aurreratzen asten diranian erbestean izandako izen orrekin etxera biurtuko dira bizikera errazago bat eramatera. (*Gogor*) Oker gabiltza! Emango bagenitu milloi asko, eramango bagenitu gazte asko, ta askoren artean bat, bat bakarra, urteen buruan aterako balitz, euskotartzat agertuaz, jakitun ospatsu bat, izar argi antzera bere dizdirak nun-nai zabaltzen dituela, esan genezake milloi guziak ondo botiak zirala. Ez bai da dirurik orrelako gizon bat ordainduko duenik. Orrelako banaka batzuek

izatian, euskotartzat agertzia erraza izango da, agian izen onekua, ta egun artan baztertuta dagon gure aberri gaxo au argiratuko degu, ta etsai agertzen diran anai itxu asko sutsuenak izango dira apaintzen, edertzen eta maitatzen gure ama laztana.

ZIÑALDARIA
JUAN

Ikusiko ote degu egun ori?

Gure gain dago.

(Itzaldi au egin bitartean izenpetuko dituzte, oi dan bezela, atzenaiko orriak; aurrena Juan jaunak, ta ondoren Xanti ta idazlariak)

BIGARREN IRUDIA

Lenguak eta Andre Anjela, Andre Ilari ta Karmentxo

(Andre Anjela ta Karmentxo elkarri besoa emanaz atzetik sartzen dira. Ondoren andre Ilari)

ANDRE ANJELA *(Atean agertuz)* Ona gu emen galeraztera. Amaituko zenduten?

ZIÑALDARIA Zuk egundaño ez dezu galerazten.

JUAN Amaitu degu. Etorri zindezteke. Izketan ari giñan.

ANDRE ANJELA *(Irritsu eran)* Badakit zer gaitan. Gure Euskadi gaxo au beartsu dagola, seme ospatsurik ez daukala, danak urruin egiten diotela, ta geronen nabarkeriz erbesteko seme arro ta ausarditsuak danen jabe egiteko bidian dirala...

ZIÑALDARIA Ta txit ederki agertu dizkit. Ezagun da maitasun oyek biotz barrenian daramazkiela.

JUAN Gero ta sutsuago. Bada, kemena galtzen ari dan bezela badirudi maitasun oyek ematen dizkaten indarrez biotza ta adimena indartzen dirala.

ANDRE ANJELA Okerrena da neoni ere berdin jarri nauela.

ZIÑALDARIA Ziñesten det.

ANDRE ANJELA Asieran ez nion jaramonik egiten; gero irri-parrez entzuten nion, ta orain gogo betez. Nere irakasle izan da senartxo maite on au... *(Burua edo arpegia igurtziaz. Gero Karmentxo erakutsiaz)* Begira zaiozu besotik dakarten loretxo oni. Ikusi ez degun urte ontan liliburua iriki da ta usai gozoz inguru danak betetzen ditu.

KARMENTXO Anjela...

ANDRE ILARI Lotsatuko dezu.

ANDRE ANJELA Arrosik ederrenak pozik artuko luke zure arpegi zuri eder ortan agertu dan gorritasun bixi ori. Karmentxo... *(Musu emanaz)* Pedrok arrazoi du ta esaten ditun ondasunak ez dira gizongaiak bere maitean arkitu nai lituzkenak, egiak baizik.

KARMENTXO Pedro ero bat da. Zorakeriak besterik esaten ez ditu.

ANDRE ANJELA Ta zuk pozgiro entzungo dizkatzu.

JUAN Mutil ona da, ta azkarra; etxagille ona, lanak ikaratzen ez duena, ta au gaurko gazteetan sarri arkitzen ez da. Gure aur-jaso-etxe berria egiten ikusi det; gero beste lan geiagotan ere bai. Bizia alai darama, bere biotz ederra ez baidu urratu oraindik ludiko arantzakin. Utzi par egiten, negarra agindu gabe sarri etortzen data.

ANDRE ANJELA Bazkaldar gera gaur.

JUAN Gu? ...Nun?

ANDRE ILARI Emen. Elkarrekin jango degu. Ez det nai iñora juatea.

JUAN Eskertzen zaitut Andre Ilari ta pozik jango det zuen etxean.

ZIÑALDARIA Pozik aundiena guretzat da.

JUAN Ostatuko bazkari oyeke ez didate on aundirik egiten.

ZIÑALDARIA Gelditu ba, ta sartu diranian utzi degun itzaldia jarraituko degu gai berian... pozik entzuten nizun ta.

JUAN Bazkal aurretik lantxo bat egin bearra badet: Jauregi sendagillearen gana agertu bat egin. Buru au astuntxo daukat aspaldian.

ANDRE ANJELA Izan ere ñere biotza!, aztuta negon. Guazen, ta oyeke bazkaria gertu orduko emen gera.

JUAN Xanti, jaso itzik paper guziak. Esandako bi idazki oyeke egin, ta bota beriala... ta garaiz etorri.

XANTI Bai jauna, beriala dana egingo det.

ANDRE ILARI (*Andre Anjelari*) Mutil zintzua zuen idazlaria.

ANDRE ANJELA Naimen aundikoa. Nere senarraren gatik zernai gauza egingo luke. Egia, berak ere, asko egin dio: ezerrezetik atera ta berarekin dabilki nunai, ezer ukatu gabe. (*Zintzarria entzuten da, barrenen jua*)

KARMENTXO (*Andre Anjelari*) Pedro dator.

ANDRE ANJELA Nola dakizu?

KARMENTXO Zintzarria jotzeko eran.

ANDRE ANJELA ¡¡Ah!!...

KARMENTXO Sartu da.

ANDRE ANJELA Ez dator ba.

KARMENTXO Ez, gela nagusira juaten da.

ANDRE ANJELA Datorrela ba onera. (*senarrari besoa emanaz*) Juan, Pedro dator.

KARMENTXO (*atetik ots egiñaz*) Pedro... Pedro... Atoz onera.

IRUGARREN IRUDIA

Lenguak eta Pedro

PEDRO (*Atian agertuaz*) O! Zenbat edertasun etxe ontan.

ANDRE ANJELA Ori ez dezu guregatik esango.

PEDRO Danon gatik. (*Juan jauna gatik, ondoren emaztea gatik*) Ona emen biotzik ederrena ta sutsuena duen euskotar jatorra, gutxi bezalako emazte eder eta maitazalea besotik daukala. (*Karmentxo'ren gatik*)

Ona emen Euskadiko baratzen saria eramango luken lorerik apaiñena...

KARMENTXO Erua, besteren erua...

PEDRO Zugatik zoratua.

ANDRE ILARI Ta ez al da aita ta amagiarrebagayentzako ezer itz apaiñik?

PEDRO Nola ez?... Onek galerazi dit... Ara... (*zerbait esan naian*) Ara...

ANDRE ANJELA Ara gizon eztarria korapillatuta. Obe dezu ixildu, etzaitzu ongi aterakota. (*damak par egiten dute*)

PEDRO Ez ote da ba?... Ara...

ANDRE ANJELA (*Senarra besotik daramala*) Agur Pedro. Baguaz.

PEDRO Badijuazela? Nola? (*zati au guzia parrez*)

ANDRE ANJELA Oñez.

PEDRO Orren azkar?

JUAN Azkar ez... poliki... poliki...

PEDRO Egia bai... (*berez, lotsatuta*) Bapo Pedro, ongi gelditu aiz.

KARMENTXO Berritsua izateen gatik.

ANDRE ILARI Gero arte.

ZIÑALDARIA Kontuz Juan, irrixt egin gabe. (*Juan jauna ta andre Anjela irtengo dira. Ondoren andre Ilari ta Ziñaldaria, idazlaria lenago irten da*)

LAUGARREN IRUDIA

Karmentxo ta Pedro. Xanti gauzak jasotzen

PEDRO Irten bear dezu?

KARMENTXO Ez. Bazkaria jarri bear det.

PEDRO Neskameak ori egingo du.

KARMENTXO Anjela ta bere senarrak gurekin bazkaltzen dute.

PEDRO ¡A! Orduan arrazoi dezu ¡maitetxo!

KARMENTXO Anjela bezela asi al zera...? ¡Maitetxo!... Pedro, Anjelak bere senarra nola orrenbeste maite duen ezin ziñeztu liteke. Bera orren gaztia... senarra orren zarra... ¿Beti orrela al da?

PEDRO Beti. Bi urte badira egunero ikusten dituala, ta uste det egunetik egunera maiteago daukala bere senarra. Ez da arritzekua. Anjela batere arrokeririk ez duen emakume on eta biotz aundikoa da. Senarra berriz gizon oso jakintsu ta argia, ta ala, batere beartu gabe, ezerki ukatu gabe, bere emaztea eramaten du berak gogo duen asmoetara. Asmo abetan jarriak daukazkite biok beren biotzak. Bi biotzak bat egiteraño batuak daude, ta ez dira bizi elkarrentzako baitzik.

KARMENTXO Arritzekoa da.

PEDRO Maite izatea askotan gaitza. Maite ezkerro ez dago eragospenik.
(*Soñu aundi bat entzuten da. Ondoren karrasiak. Xanti irtetzen da, ta beriala txit larri sartuko da*)

KARMENTXO Zer da? Zer da ots aundi ori?

PEDRO Eskalletan da.

KARMENTXO Anjela karraxika, ama ere bai, aita ere bai... Jaun aundia, zer gertatzen da?

XANTI (*Alki bat artu ta berriro irtenaz*) Nagusia erori da. Miñ aundia artua izan bear du.

PEDRO Banua, ia zer ote dan.

KARMENTXO ¡Au atsekabea! Gizon orri gure etxean okerren bat gertatu ote zaio? Orrelako zerbait bada... Anjela gajual!

BOSTGARREN IRUDIA

Karmentxo, andre Ilari, gero Xanti

ANDRE ILARI Ai Karmen!! Ai Karmen!!

KARMENTXO Ama, zer gertatu da?

ANDRE ILARI Zerraldo erori ta korderik gabe dago Don Juan gizajoa.

KARMENTXO Orren gaizki?

ANDRE ILARI Ala diruri.

KARMENTXO Onera al dakarte?

ANDRE ILARI Gela aundira. (*Ezkerretan aurre aldetik dagon gelara juana*).

KARMENTXO Obe dute atzetikan sartu.

ANDRE ILARI Bai, ala da. (*Atzetik irtenaz*) Ots egiozu Don Lukas'i datorrela beriala.

KARMENTXO Beriala. (*Telefonoa artu ta erabillia*) "...Don Lukas'en etxera itz egiten al det?... Ni? Karmen, ziñaldarien alaba... Etxian al da?... Datorrela ba beriala... bañan azkar... ez, ez da etxekoa, gure lagun aundi bat eskalletan erori da, ta korderik gabe jaso degu... gaizki dagola diruri... zu, zu, ekarri ditzala egoki diran gauzak, bañan azkar, azkar.

ANDRE ANJELA (*Gelan barrendik*) Juan, Juan nere biotzeko senartxoa, zer dezu?... Ilari, Pedro, Xanti, sendagille bat ekarri nazute beriala.

ANDRE ILARI (*Gelatik irtenaz*) Ots egin al diozu sendagilleari?

KARMENTXO Bai ama, beriala dator.

ANDRE ILARI Gizon ori gaizki, txit gaizki dago.

KARMENTXO Orren gaizki?

ANDRE ILARI Ez dauka arnaserik, ez dauka pultsorik ere... Ozpin billa nijua. (*Irtetzen da*).

XANTI (*Gelatik irtenaz*) Nagusi gizajoa! Ni berakin ez nitzalako... nerekin etzan eroriko... Esan nazazu sendagille baten etxea. Nora juango naiz ni?

KARMENTXO Ez dakit ba nik.
 IDAZLARIA (*Gelatik atera ta, atzēko atetik beriala irtenaz*) Don Luis sendagillearen billa nijua.
 XANTI Ta ni, ¿zeñen gana juango naiz? (*Anjelaren aots eta negarrak entzungo dira*)
 KARMENTXO Emakume orrek erotu bear du. (*Gelan sartuko da, ta ondoren Xanti*).

SEIGARREN IRUDIA

Andre Ilari ta Don Lukas: gero Xanti, Karmentxo ta Pedro

DON LUKAS Ez da beaz etxekoa?
 ANDRE ILARI Ez, Aizpurua'tar Juan indiano aberatsa.
 DON LUKAS Ta, zer du?
 ANDRE ILARI Eskalletan erori da; korde gabe jaso degu, ta olaxen dago.
 DON LUKAS Ez da gauza aundia izango.
 ANDRE ILARI Bildur naiz ba.
 KARMENTXO (*Gelatik ateriaz; ondoren Xanti*) Azkar Don Lukas, azkar. (*D. Lukas ta Ilari sartuko dira*)
 XANTI Zer esaten duten jakin nai nuke... bañan beste baten billa juateko esan dit eta...
 ANDRE ILARI (*Atetik irten gabe*) Ur epela.
 XANTI (*Juaten asi ta ate onduan gelditua*). Ekarriko det... Nundik? Nundik?
 KARMENTXO Ekarriko det nik (*atzetik juana*, Pedro gelatik irteten da)
 XANTI Nola dago?
 PEDRO Txit gaizki... Iltzen.
 XANTI Ezin liteke.
 PEDRO Ezin? Osagilleak ala diyo ba.
 XANTI Orrek ezer ez daki.

ZAZPIGARREN IRUDIA

Pedro, Xanti, Karmentxo, Don Luis sendagillea. Gero Andre Ilari ta Don Lukas

KARMENTXO (*Atzetik barrenara itz egiñaz. Eskuan ontzi bat dakar*). A! Don Luis sendagillea... Betor, betor barrena... (*Sartzen da gelan*).
 DON LUIS Egun on.
 PEDRO Ongi etorri. Sartu barrena, alperrik da baño...
 DON LUIS Orren gaizki al dago? (*Gelara juana*).
 PEDRO Txit gaizki.
 XANTI Oraingo onek sendatuko du.
 PEDRO Batek sendatzen du. Bik... gutxitan; ta iruk... egundaño ez.

KARMENTXO (*Gelatik irtenaz*). Ekartzeko irugarrena.
XANTI Nik, nik ekarriko det... Esan nazute zein ta... non bizi dan.
ANDRE ILARI (*Agertuaz negar antzian*). Zuazte apaiz billa. Osagilleak ezin dute ezer egin. Anjela ¡gajua!... ¡Zer atsekabea!

KARMENTXO Banijua apaiz billa.
PEDRO Ez Karmentxo, zaude. Inguruko elizatik ekarriko det (*Pedro juaten da. Lukas agertuko da neke aundia erakutsiaz*).

DON LUKAS ¡Alperrik dana!... ¡Alperrik! ¡Il da!...
DANOK ¡Il da!!... A! (*Danok gelan sartzen dira. Entzungo da beriala andre Anjela negarreaz zotinka. Xanti gelan sartzeakoan ikaratuta ate ondoan buruari eutsi ta geldituko da. Andre Ilari otoi egiten asiko da ta danok erantzuten diote.*)

ANDRE ILARI (*Barrenan*) Aita gurea... zeruetan zaudena...
XANTI (*Apur batean egongo da Len esan bezala ta dio*) ¡Nagusirik gabe gelditu naiz! (*Bat batean, maiera juan, Juan jaunaren atzenaia artu ta irikitzen du*).

ANDRE ILARI Bi milloi... Zortzi milloi... Alargun orren gazte... ta ederra...
XANTI (*Len bezala barrenen*). Aita gurea...
(*Belauniko erortzen da atzenaia lurrera erortzen utziaz ta burua makurtuaz antzeztozikiko oyala jeisten dan bitartean barrengo otoitzari erantzungo balio bela bezela*). Aita gurea...

ANDRE ILARI (*Berdin*)... Zeruetan zaudena...
XANTI ...Zeruetan zaudena...

Ezkuta-zapia jeisten da
LENENGO EGINTZAREN AMAYA

BIGARREN EGINTZA

Andre Anjela'ren jauregiko gela-nagusi bat, argia ta txit ondo antolatua. Atzean ezker aldean -edo albuan- ate zabal bat hall aundi batera ta barrengo geletara bidea ematen duena. Eskui aldero beste aundi bat, au ere dana zabaldua. Ate ontatik ageri da, aurrena baratzara jaxitzeko bi aldetako eskallera bere eskudel-baranda-ta guzi, ta ondoren baratz ederra, bere lore, zugatz eta abarrekin. Eskuitan, aurre aldera idazmai bat. Atzean exerileku apañak.

LENENGO IRUDIA

Andre Kiteri, Irene (bere alaba), Paulita ta Neskamea

(Irurak etorriko dira goizean andre ta andere etxe onekuak elizara juaten diran eran. Irene txit ixilla da, lekaipe gaia bait da. Paulita, berriaz, itz-jarioa. Bere naimen guzien kaltez ezkongai dago. Urteak badijoazkio bañan ez aragiak, gero ta gizenago bai dago, naiaz kortzez eta soin estuz ondo ezutu. Txikia da, neskatillen antzera, gaur oi dan bezala, gona motzak eta kolko ageria daramazki. Ez da itxusia arpegi azal ona ta begi biñiak bai ditu)

- NESKAMEA *(sartuko da iruren aurretik)*. Eseri bitez. Bereala ots egingo diot. *(Ezkerreko atetik joango da.)*
- ANDRE KITERI Eskerrikasko.
- PAULITA Aurrenekoak gera. Inñoren etxera etortzeko goiz da, bañan nola gaur erri guzia etorriko dan, ez nuen geroko utzi nai.
- ANDRE KITERI Ba gu, elizako jira egin ezkerre gutxitan ateratzen gera ta onera etortzea geroko utzi bagenuen, gaizki ibilliko giñan.
- PAULITA Zu, zenbat urte ditu gaur Anjela'k?
- ANDRE KITERI Onek izango ditu... zaude... Ezkondu zan... emeretz urtekin. Ezkondu egin zituen... amaika... ta, orain alargun dagola iya bi... dira... emeretz.. ogeitamar... ogeitamabi... Bai, ogeitamabi. Gaztea da.
- PAULITA *(Jauzi-salto-bat atzeaka eman da eseriko da, ta egokera artzen duen bitartean barrengo jai! bat botiaz. Aizeki az-abaniko-txit maiz eta biñi aizetuko da)*. ¡Ai!... Gutxiyago ditut nik, eta ez naizela gaztea esaten didate.
- ANDRE KITERI Nezkatxako ez, andretzako bai. Ta gañera... gutxiyago... Zenbat gutxiyago dituzu zuk?
- PAULITA Nik... ondoto.
- ANDRE KITERI Bai... lau edo bost... illabete... Gogoratzen nai nola zure ama ta orrena inguruan ziran aurdun.
- PAULITA Gutxiyago... gutxiyago... ta orain bertan, diotenez, gure alargunaren inguruan, bi edo iru bai omen dabilta, ta nerean inñor ez.
- ANDRE KITERI Emakumea, gezurra diruri zu beti onelakua izatea. Jaungoikoak nai badu, senargaia izango dezu, ta ezkonduko zera, bañan nai ez badu...
- PAULITA Nork esaten du ez duela nai?

ANDRE KITERI Nik ez. Bañan ezkontzeko jaio bazera agertuko da norbait... Ara...
onek, denbora gutxian, bi izan ditu, ta mutill on askuak, bañan nola
lekaiame –monja- jua nain duen...

PAULITA Zer egin du?

IRENE Ezezkoa eman. Nik autua daukat nere betiko ezkona: Jesus nere
jabe ta Jaun aundia.

PAULITA Ba nik, ezur ta aragizko senarra nain det.

IRENE ¡Jesus nerea!

PAULITA Ez arritu, ez. Nik nain detana esan egiten det... beste askok, ixildu,...
ta or dabilta irrikitzen, prosesiyua barrenen dutela.

IRENE (*Berez*) Geienaz zu aña.

PAULITA Gizonakin gertatzen dana arritzekoa da. Ez du balio, ez polita
izateak, ez argia, ez biziya... ta askotan ezta zerbait izateak ere.
(*diruen gatik*).

ANDRE KITERI Asko izateak bai ordea?

PAULITA ¡A! ori bai! Ara Matilde bere oin oker, kokotz luze ta izketa zapa-
zapakin... senarra.

IRENE Ain neska ona da ta... Onek esango dituenak.

PAULITA Bañan dirua alde batera utzita ere, ez dakit gizonak nora begiratzen
duten, ta zer ikusten duten. Klotilde, talo erre gabeko arpegidun
neska ura... ezkondu. Anselma, kanaka neurtu bear dan
emakumea... ezkondu. Luisatxo, ezur eta larru, soñekuak zintzilik
eramateko dirudien makilla... ezkondu. Eliodora, ate ortan sartuko
ez litzaken betroia... ezkondu.

ANDRE KITERI Ta Paulita?

PAULITA Paulita... emen... gai... beti gai...

IRENE Bai egongo ere. Gizonak ezagutzen zaituzte bai.

ANDRE KITERI San Antonio'ri eskatu bear diozu arreta aundiz.

PAULITA Orrekin aserre nago.

ANDRE KITERI Zer ba?

PAULITA Entzuten ez nauelako. Juan dan urtean egin nizkan amairu
astearteak, agindurik gañera, senargaitzako eskatzen nion mutillak
baiezkoa emateko nere aldetik alegin guziak egingo nituela... ta...

ANDRE KITERI Ta?...

PAULITA Ta... ta...

ANDRE KITERI Ez al-zuen baiezkorik eman?

PAULITA Bai... Neskatala, motos zintzilik, amairu astearteak nerekin egin
zituen bati.

ANDRE KITERI Biyori ezin ba eman.

PAULITA Ez nion nik biyontzako eskatu, neretzako baizik. Orduezkero
asarre nago. (*Apaiz jaunaren aotsa barrenen entzuten da. Atzetik sartzen
da*)

APAIZ JAUNA Utzi, utzi, badakit bidea.

ANDRE KITERI Apaiz jauna dator.

IRENE Ala ere; orain ixilduko da.
PAULITA Ez dakit zer egiten duen Anjela'k etorri gabe.

BIGARREN IRUDIA
Lenguak eta Apaiz jauna

APAIZ JAUNA Egun on. Aurrena nitzala uste nuen, bañan badira emen goiztarragoak.

PAULITA Aurrera Apaiz jauna, ikaratzen ez ba-degu (*Gero berez*). Gizona nola baidan...

APAIZ JAUNA Zuek? Ez orixen (*Paulita'ri aurreratuz*). Kaxo, beti panpoxa.

PAULITA Naiz alperrik!

APAIZ JAUNA Andre Kiteri... ta, zu, Irene... ondo?

IRENE Txit ongi, Jauna'ri eskerrak. (*Eseritzzen dira*)

APAIZ JAUNA Paulita, gizentzen ari zera.

PAULITA (*Asarre antzean*). Ni... ni... ez orixen.. Juan dan neguan baño meago nago.

APAIZ JAUNA Uuuu! Etzait ba iruditzen.

PAULITA Atzo pisatu -astundu- nitzan ta... bi libra gutxiago naiz. (*Apaiza parrez ta Paulita erneatzen*)

APAIZ JAUNA Ta neguan, gañean eramaten zenituen zamar eta larruak nola baziran gutxienaz bost... ba... iru nere alde.

PAULITA (*Oso asarre*). A!...

APAIZ JAUNA Anjela'ren zai al-zaudete?

ANDRE KITERI Bai, ta ondotxo.

APAIZ JAUNA Gaur lana erruz izango du... Zein ona dan! Aiztian, meza ondoren Jauna eman diotanian, oldozten egon naiz: ona emen emakume ona, biotz utsa, erri koskor ontan sartu ta danai on egiten bizi dana. Beretzako ez da etzairik, danak lagunak bai ditu. Ez da beartsurik orren eskua arkituko ez duenik; samintasunik, orren itzez eta malkoz gozatuko ez danik. Sendietako larrietan, jayotze, ta iltze guzietan an da. Bañan ez galerazten, on egiten baizik.

ANDRE KITERI Ona bai da Andre Anjela.

APAIZ JAUNA Beste bat ez bezelakoa. Bere Aur-jaso-etxeko aurrak, iñongo aberatz etxetan baño obeto daude. Bera beti an da: zer bear duten ikusten, berekin jolasean, berekin negarrez, berekin parrez... Ama onena bezala!!

PAULITA Luzaro izango al-da erri onetan?

APAIZ JAUNA Jaunak nai duen arte... bañan luzaro. Bere osasun on, eta erriko guztien otoitzak urte askoko bizia ekarriko diote.

PAULITA Entzun det ba nik, zer edo zer badabilkiela... ta ez dala luzaro alargun egongo. Ala balitz, orrek dituen dirutzakin ez luke emen jarraituko.

APAIZ JAUNA Ba, ba, ba... Berriketak... berritsuen marmarrak.

IRENE Asi da berriro... ¡Ori mingaña!

APAIZ JAUNA Askoentzako, gizon eta emakume gai diranak itzegiten ba-dute, edo elkarrekin ibiltzen ba-dira, ezkontzeko lanetan dira. Ezin oldestu dute, gizonak beren artean, eta emakumeak berenean dituzten artu-emanak, gizon eta emakumeak ere izan ditzatekela. Oientzako, gizonak ez du emakumean ikusten emea baizik, egokia edo eza... Ta emakumeak, gizaseme ederra ala itsusia, gizontako ona ala txarra. ¡Ez!... ¡Ez!

PAULITA Ez da beti izango, bañan geienetan bai.

APAIZ JAUNA Ez da ba izan bear: gizonak eta emakumeak, elkarrekin ibilli bear dute gizon eta emakumeak beren artean ibiltzen dira eran. Ezkontzarik oldestu gabe, gogoratu gabe gonaz ala galtzaz jantzia dagon. Ta onela... onela da gure Anjela: trebe ta zintzoa gizon artean, eztitsu ta mamitsua zuen artean.

IRUGARREN IRUDIA

Lenguak eta Andre Anjela

ANDRE ANJELA (*Ezkerreko atetik, beltzez, apain jantzia sartuko da. Eskuak danai luzatuz*). Barkatu, barkatu orren luzaro itxogon azi ba-dizutet.

APAIZ JAUNA Guri barkatu orren goiz iñoren etxera bagatoz.

ANDRE ANJELA Iñoren etxera ez. Zeon etxean zaudete. Bañan exeri... (*Exeritzen dira danok. Anjela'k Irene'ri muxu bat eman ta artuko du bere ondoan*)

APAIZ JAUNA Anjela: Jaunak urte askoko bizia eman deizula, zure zoriontzarako, ta erri guziko onerako. Gaurko egunean, zure aingerua bitartekotzat artuta eskatu ezazu, ta zuk nai dituzun, eta guk biotz biotzez opatzen dizkitzugin eskar guziak, izango dituzu.

ANDRE ANJELA Eskerrak, eskerrak apaiz jauna.

ANDRE KITERI Apaiz jaunak esan bezala, danok zure ona nai degu.

IRENE Jauna artu detanian zuregatik arren egin diot.

ANDRE ANJELA Ziñesten det, Irene, ta eskerrak zuri.

PAULITA Gaur bezela, zoriontsu jarrai dezazula, nai dezunaren... alkartasunean... (*Apaizak begiratu zorrotz bat eta jun, jun estarriarekin*)

ANDRE ANJELA Nik zuen danon alkartasunean. Ez bai da gutxi. Laister bi urte, nere senar maitea galdu nuenian eta berarekin argitasun ta laguntza aundia, nere bakartasuna ikusiaz, ikaratu nintzan. Bañan danok agertu didaten ontasunarekin, nere senar zanak zerutik ematen didan laguntza aundiarekin, ez det bakartasunik arkitzen. Jauna

zenbat eskertu bear detan nik bakarrik dakit, ta onetan bai lagun egin bear didazutela danok, batez ere beorrek, apaiz jauna, eskergabea agertu ez nadin.

APAIZ JAUNA Etzaitugu iñork aztuko.

ANDRE KITERI Ez orixen.

APAIZ JAUNA Zer diote, erbestean ikasten daukazkizun iru gazte jakintsu oiek?

ANDRE ANJELA Ondo dira. Alemanian dan sendagilleak, nere egunaren oparizat biali dit diru askoz ordaindutako gauza txit polita. Margolariak Italia'tik nere irudia.

APAIZ JAUNA Ederra, ederra. Ikusi det.

ANDRE ANJELA Ni naizela dio; nik uste det irudia ni baño ederragoa dala.

PAULITA Arrazoi dezu: obetua zaude.

APAIZ JAUNA (*Maltzur*). Zu bezala gizendu egin al-du?

PAULITA (*Asarre*). ¡Sudurra!

ANDRE ANJELA Paris'en galduta dabillena Andres, nere ereslari gisaxoa da. Gaur nere eguna danik ez da gogoratu.

APAIZ JAUNA ¡A! Ori txoroburua!

ANDRE KITERI Donostiarra izan.

APAIZ JAUNA Ez dezu orrekin ezer egingo: buru txar bat da.

ANDRE ANJELA Ertilaria-artista.

APAIZ JAUNA Gogora aziko nioke nik.

ANDRE ANJELA Nik ere bai. Gaur bertan bialiko dizkat milla peseta, idazteko -eskribitzeko- papera erosi dezan.

APAIZ JAUNA ¡A! Ori geyegi da...

ANDRE ANJELA Geiegi, beñere ez. Badakizute nere senarrak zer nai zuen: aurrera jua nai zuten euskotar gazte argiai laguntzia. Nai nuken, eta bear litzaken guzia ezin egin detala ikusten det, bañan sayatzen naiz. Badakit iru gazte abek ongi lan egiten dutela, ta aurrera dijoazela.

APAIZ JAUNA Andres'ek ez du aurreratuko.

ANDRE ANJELA Baietzian nago; ta ala ez balitz kaltea ez litzake beretzat bakarrik izango, danentzat baizik. Iritxi da euskotarra euskotartzat agertu bear dan garaia. Gure izakia non-nai agertu dedin alegin guziak egin bear ditugu. Gure anai pizkorrak gora ditezen eman bear ditugu diruak, laguntzak, erraztasun aundiak. Bear ditugu euskotar gallurrak. Entzun senarrak ziona: "Ez da diruik, -aneik- milloirik, gizon abetako bat osatzeko lain."

APAIZ JAUNA Abenda txiki onek gutxi eman lezake.

ANDRE ANJELA Abenda txiki onek gizon argi asko eman ditu.

PAULITA Arritzekoa da emakume bat onela izketan entzutea.

APAIZ JAUNA Pozik entzuten diot.

ANDRE ANJELA Ez naiz ni. Nere senarrak donetokitik ematen didan laguntza gero ta argiago ikusten det. Bizi zala jaramonik egin gabe entzuten nion, baña orain bere esanaz, bere egipen guziaz gogoratzen naizenean ikusten det aberriaganako maitetasunez zenbateraño zeukan sutua

bere biotza. Semerik ez det. Jaunak badaki zer egiten duen; ba, detan eta naizen guzia jarriko det seme ori izateko. Ez nere: danona, aberriarena, nere senarrak billatzen zuen semea, aberriak bear duen semea. Nere izketakin aztuta negon gosaldu gabe egongo zeratela. Guazen danok zerbait artzera.

DANOK *(Altxiaz)* Eskerrikasko.
ANDRE ANJELA Eskerrak ez orain ta ez gero.
ANDRE KITERI Baguaz gu. Agur Anjela, osasun onez jarraitu, ta gaur urte bete zuri berriro zorionak opatzeko eskarra izan dezagula.
ANDRE ANJELA Eskerrak Kiteri. *(Irene'ri muxu emana)* Agur Irene.
IRENE Agur Anjela.
PAULITA Ni ere banijua.
ANDRE ANJELA Zu ere bai?
PAULITA Bai, orrazteko ta jazteko nago ta...
ANDRE ANJELA Bazkaltzera atoz. Baratzan jarriko det maya. Asko izango gera.
APAIZ JAUNA Mutil gazteak ere bai?
ANDRE ANJELA Nola ez.
APAIZ JAUNA Orduan Paulita etorri... Ya gaur... bat edo bat... erortzen dan.
PAULITA Gaur edo biar berdin izango da neretzat.
APAIZ JAUNA Nork daki?... Ta ez aztu tella kolorea masallean jartzea... Ondo ematen dizu.
ANDRE ANJELA Ta beorrek ortaraño begiratu...
PAULITA Ta gero apaizak begiratzen ez dutela esango dute.
APAIZ JAUNA Ixo.. ixo... Itz egiten diogun emakumeari, norabait begiratu bear diogu, ta gaur ez dago erraz. Arpegitik beraxiago agiriyan... ta beraxiago... *(bere soña altxiaz zankoak erakutsi nayian)* zer esanik ez. ¡Jauna! Ez dakit laister zer erakutsiko dezuten.
PAULITA ¡Aja, ja!... *(Paulita parrez jirako da bizi zankoak erakutsiaz ta irtengo da)*

LAUGARREN IRUDIA

Andre Anjela, Apaiz jauna ta Neskamea

NESKAMEA *(Ezkerreko atetik)* Etxekoandrea.
ANDRE ANJELA Zer bear dezu?
NESKAMEA Kontxexi ta bere senarra datoz.
APAIZ JAUNA ¡A! Lukas'en gurasuak. Ni banijua.
ANDRE ANJELA Gosaldu gabe ez. Betor onera... bijua barrenara. *(Neskameari)* Apaiz jaunari, emaiozu gosaria. *(Apaiz Jaunari)* Bereala naiz ni ere beorrekin.
APAIZ JAUNA Guazen ba, guazen.
ANDRE ANJELA *(Ezkerreko atetik sartuko dira)* Datozela Kontxexi ta Erruperto.
NESKAMEA Bai andrea.

ANDRE ANJELA Gaur egun guziyan ez naute pakean lagako... Zer egingo det ba... danok gogo aundiz badatoz.

BOSTGARREN IRUDIA.

Andre Anjela, Kontxexi ta Erruperto

(Kontxexi ta Erruperto erriko -oste- jendeen antzera jantziak. Kontxexi bizi ta itzjarioa da. Erruperto ixilla ta lotua; txapela beti esku artean ibilliko du.)

KONTXEXI Egun on gure etxeakoandre ona. ¡Al... Gero ta gazteago ta ederrago dago beori. Al ta orixen eskatzen diot nik egunero gure Jainkoari goizeko ezkil-argian, mezetan, eguardian, gabea... beti, beti... ta gaur, zer esanik ez. Ez da ala Erruperto, ederra dagola?

ERRUPERTO ...Bai... bai... ederra dago. *(Anjelari begiratzea lotsatuz)*

ANDRE ANJELA *(Irri parrez)* Ez ba ori eskatu Kontxexi. Ez det iñor ederretsi bearrik. Osasuna izatea naikoa det.

KONTXEXI Ez dakit ba... ez dakit ba...

ANDRE ANJELA Nik badakit eta aski da. Semearen berririk badezute?

KONTXEXI Gutxi... gutxi... Begira beza nik uste det urruti aietan naikoa egon dala, ta etxeratzeko garaia iritxi dala... Errupertok beti ori esaten dit... Ez da ala?...

ERRUPERTO *(Beartua bezala)* Bai... bai...

KONTXEXI Bai ba. Mutillarekin orrenbeste gastatu, gizon egin ta orain txanpon batzuek etxera ekarri bear dituenian, esturiazera berriz bialia...

ANDRE ANJELA Zuen semea azkarra da. Urte bete ontan asko aurreratu du, ta beste lau edo bost urtean noraño juango dan, nork daki?

KONTXEXI ¡Karmengo Ama errukitsua! Lau edo bost urte! Ez... ez... Errupertok ez du nai, ez... ez... Errian dagon osalaria zartu da, ta lan gutxi egiten du; ta gure semea orain etorriko balitz, arrunt eramango luke dana. *(Ixil antzean)* Klotilde aurregiteko egunetan laister da... Konpiteroen alaba lepoan izugarrizko azigurintxo batekin dago... Perratzallien semea ankean plemoiakin ta orain etorriko balitz ikusi beza zer dirutzak irabaziko lituken. Errupertok kontu abek ateratzen ditu, ta Errupertok esaten dit...

ANDRE ANJELA Alperrik da. Zuen semea ez da etorriko. Ta etorri ondoren, zer uste dezute, erri koskor ontan sartuta biziko dala? Ez ziñeztu.

KONTXEXI Bañan Klotilde'k nere semearekin aurra egin nai du... ta...

ANDRE ANJELA Klotilde'k ez dezaiola itxogon zure semeari... luzatxo juango zaio ta. Konpiteroen alaba... perratzallien semea ta abar sendatuko dira orain arte bezala. Ez larritu. Lukas ez da etorriko... ta dirua biar badezute Xantiri eskatu ta lasai bizi.

KONTXEXI ¡A! ¡Xanti!... ¡Xanti!... (*par antzian*) Beste zer edo zer badu ba Errupertok esan bearra... Ez al da ala?...

ERRUPERTO Nik?... (*Kontxexik begiratu zorrotz bat egiten dio ta ikaraturik jarraitzen du*) Bai... bai...

ANDRE ANJELA Zer dezu ba Erruperto?

ERRUPERTO Nik?... Ezer ez...

KONTXEXI Buru orretan ez beñepin. Illeak ere ez dakit nola dakauzkizun... Etxean berriketan eta emen itzik ez.

ERRUPERTO Emen eta etxean berritsua zu zera... Ez det nik ezer esango...

ANDRE ANJELA Esan zazu bada zuk, bañan azkar, juan egin bear det eta.

KONTXEXI Badaki... gure alaba urtetan aurrera dijoa ta... pentsatu degu ezkontzeko sasoirik egokienean oraintxen dagola... polita da... aziera onak baditu, etxean bear diran gauza guziak egiten badaki, ixilla... apala... egokia, itz batean nere antz-antzekoa...

ERRUPERTO Zuria? Zertan?... Nere antz ber bera badu.

KONTXEXI Nai bai. ¡Sudurra!

ERRUPERTO ¡Gibela!...

ANDRE ANJELA Kontxexi ixo... ta aurrera. Ezkondu egin bear al dezute?

KONTXEXI Beorrek nai balu...

ANDRE ANJELA (*Parrez*) Nik? Ni ez naiz gurasoa ta ezta gizongaia ere.

KONTXEXI Bañan bai gizon gaia daukana.

ANDRE ANJELA Nik?

KONTXEXI Erruperto'k esan zidan... senargai ona izango litzakela beorren idazlaria... Xanti.

ANDRE ANJELA ¡A! Berak nai badu...

KONTXEXI Beorrek nai badu berak naiko du.

ANDRE ANJELA Xanti ez da nere semea, ta ezta nere sendikoa. Zeorrek esan zaiozu... alabak esan nai ez badio.

KONTXEXI Baimena ematen al dit?

ANDRE ANJELA Noletan ez.

KONTXEXI Ez dakit bañan... zer edo zer esan zidan Errupertok eta...

ERRUPERTO Gezurra... ez nizun nik esan. Ez bezaio jarramonik egin onen berriketai.

KONTXEXI Laguntza ederra dauka alabak zurekin.

ANDRE ANJELA Alabak edo semeak, buka zazu azkar. Zer dio Errupertok... edo zer diozu zuk?

KONTXEXI Onek esaten ez duen ezkerro, nik esan bearra... ¡Alaba gaxoa! ...Ara ba... alegiya, mutil ona dala ta... beorrentzat autua daukala ta... laister...

ANDRE ANJELA (*Oso illun*) Zer laister?

KONTXEXI Ezkonduko ote diran...

ANDRE ANJELA (*Txit asarre ta gogor*) ¡Berritsu!... Gezurra sortzea gaizki egiña da, bañan aotan ibiltzea okerragoa. ¡Zoazte emendik!

KONTXEXI (*Ikaratua*) Errupertok esatea nai zuen ba, ta...

ANDRE ANJELA Errupertok ez... zuk.
 ERRUPERTO Arrazoi du.
 KONTXEXI Ederki... Gañea arrazoi eman... ¡Alaba gaxoa!
 ERRUPERTO Ez, zuri emango dizut. Berritsu ori.
 KONTXEXI Ezagun da etzizula neri aña jayotzia *kosta...* (*Negar antzean*)
 ANDRE ANJELA Agur... Datorrela alaba.
 KONTXEXI (*Pozturik*) Nerekin?
 ANDRE ANJELA Ez, bakarrik.
 KONTXEXI (*Ezkerreko atean ezkutatuaz eta oraindik negar antzean*) ¡Alaba gaxoa!...
 Onelako aitakin ongi jayoa zaudel!

SEIGARREN IRUDIA

Andre Anjela ta Xanti

XANTI (*Baratzatik sartzen da*) Egun on, Andre Anjela.
 ANDRE ANJELA Egun on Xanti... (*Berez*) Gaur ez diate pakean utziko.
 XANTI Nere aita zarrak ere etorri nai zuen, bañan neronek galerazi diot.
 ANDRE ANJELA Zertarako? Adiskide zarra bai det, eta onespen aundia bai diot.
 XANTI Bai orixen. “Esan akiyok -esan dit- gaur ez galerazteagatik ez juan arren, egun guzian aurrean irukiko detala, ta Jaunari arren egitez ez naizela aspertuko, gaur zoriontasun guziak iritxi ditzan.
 ANDRE ANJELA Biotzetik eskertzen det.
 XANTI Artu itzazu, arenarekin batean, nik ere biotzez opatzen dizkizudan ontasun guziak.
 ANDRE ANJELA Eskerrikasko Xanti. Gaur bost idazki etorri dira. Irakurri itzazu ta erantzun bear zaiote... Lukas, Antonio ta Andres’i milla bana peseta bialti gaur nere izenean; eta Andres’i esan idazteko papera erosi dezan bialtzen dizkiodala.
 XANTI Azkenean ez du idatzi...
 ANDRE ANJELA Ez. Arrek aterako dituen zalapartak zer egun juan dan gogoratzen danean.
 XANTI Gezurra diruri zure eguna noiz dan aztutzea.
 ANDRE ANJELA Ez da arritzekoa.
 XANTI Bai. (*Sutsu*)
 ANDRE ANJELA (*Erantzuteko eraz arriturik*) Bai?... Erantzun oieri esan bezala. (*Xanti eseri maian ta idazkiak irakurtzeko artzen ditu. Anjela ezkerreko atetik irteten asiko da, bañan gelditurik dio*) ¡A! Zu, Xanti. Bai al dakizu, zertara etorri diran Erruperto ta Kontxexi?
 XANTI Zorion agurra egitera.
 ANDRE ANJELA Bai, ta... bere alabarentzat senargaia eskatzera.
 XANTI Onera?
 ANDRE ANJELA Onera. Zurekin ezkondu nai omen du.

XANTI Ez naiz ni arrekin ezkonduko.

ANDRE ANJELA Zer ba... Besteren bat al dezu? (*Xantik erantzun gabe burua makurtzen du*) ...Ba alaba etortzeko esan diot eta zer edo zer jakin naiko nuke...

XANTI Ez dedilla etorri.

ANDRE ANJELA Ondo da. Orduan badakit zer esan. Ez dezula ezkondu nai.

XANTI Ezkondu?... Bai, naiko nuke... norekin ezik...

ANDRE ANJELA ¡A! Orduan badezula...

XANTI Aspaldian...

ANDRE ANJELA Ta, da....? (*Xantik begiratu ezititsu bat egin ondoren, burua makurtuko du ta esango du berez*)

XANTI (Zu...)

ANDRE ANJELA (*Ez dio entzuten, bañan begiratuan ezagutzen du, ta naigabe aundiarekin irtetera egiten du*) ¡Jauna!... ¡Egiya zan!

ZAZPIGARREN IRUDIA

Lenguak, Apaiz jauna ta Pedro

(Andre Anjela irtetera zijoan atetik sartzen dira Pedro, lore sorta aundi batekin eta Apaiz Jauna)

PEDRO Ala ere arkitu degu argia.

ANDRE ANJELA Illun al ziñan?

PEDRO Zu gabe bai.

ANDRE ANJELA Loretsu zatoz.

APAIZ JAUNA Loretsu ta izlari. Atzeko atetik sartu ta ikusi duenian gosaltzeko maian beltzez jantzitako bat iruditu zaio nunbait zu ziñala, ta asi zait itzneurtu eztitsu bat esaten... ja... ja...

PEDRO Zuri esaten nizulakoan.

APAIZ JAUNA Bañan irakurtzen ari nitzan egunekoa jetxi ta ikusi duenian nere arpegia berea kana bat luzatu zaio.

PEDRO Ez baidira berdiñak apaiz jaun eta gure andre Anjela'ren arpegiak.

ANDRE ANJELA (*Loreak artua*) Neretzako al dira?

PEDRO Lore oyek poztuko dira emakumeen arteko lorerik ederrenak bere eskuan artzen baditu.

APAIZ JAUNA ¡Oi, oi, oi! Oraindik ere bai? Koipetsu datorkigu gaur gure Pedro.

ANDRE ANJELA Oitura artua. Lau urte senargai ez dira alperrik eramaten.

APAIZ JAUNA Ala da... Agur, agur... Gero arte.

ANDRE ANJELA Bazkaltzeko garairako inguratu.

APAIZ JAUNA Bai, bai.

ANDRE ANJELA Xanti, Apaiz jaunari lagundu zaiozu, bakarrik juaten utzi gabe.

(Irudi ontan guzian Xanti oso keskatsu egongo da. Anjelak agintzean idazmaietik altxa ta irtengo da oso naigabetua, ta Pedrori begiratu zorrotzak botiaz)

ZORTZIGARREN IRUDIA

Andre Anjela ta Pedro

- PEDRO Bakarrrik arkitziaz pozten naiz.
- ANDRE ANJELA Zer dezu ba?
- PEDRO Luzaro biotz barrenean daramatena agertu bearra.
- ANDRE ANJELA Biotz barrena Karmentxori erakutsi bear diozu, beste iñori ez.
- PEDRO Karmentxo nere biotzetik irten da beste batek osoro betetzen duelako.
- ANDRE ANJELA Nolatan Pedro? Lau urten buruan esango dezu ori? Zugatik zoraturik bizi dan gaztetxo orren biotza urratuko dezu? Bere bizitza osoa samintasunez garrastuko dezu?
- PEDRO Ez det maite.
- ANDRE ANJELA Maite zenuen... ziur nago... Zer gertatu da?
- PEDRO Beste emakume bat, ura baño askoz geiago dana daukat begi aurrean, eta bere argitasunaz eta naimen bizi az naizen guzia betea nauka. Anjela!... ¡Maite zaitut!
- ANDRE ANJELA ¡Jauna! Zer gertatzen da gaur? Zoratu naiz! edo zoratu egin naitut! Bigarrena gaur ori bera esaten didana.
- PEDRO Bigarrena? Nor da bestia?
- ANDRE ANJELA Xanti.
- PEDRO (*Asarre*) Xanti zuri ori esaten ausarditu da?
- ANDRE ANJELA Ez. Ez dit esan. Bañan bere naia naiko erakutsi du.
- PEDRO Entzungo dit!
- ANDRE ANJELA (*Pizkortasun aundiarekin ta itzak ongi ...*) Zer?... Ezta itzik ere... Gai ontan ez dezu itz bat geiago esango. Ez arri ta ez neri... ¡Galerazten dizut!
- PEDRO ¡Anjela! ¡Kupi zait!
- ANDRE ANJELA Kupi zaitte zu Karmentxotzaz (*Mirentxu eskutik duela Xanti'k azkeneko itzak entzuten ditu*)

BEDERATZIGARREN IRUDIA

Lengoak, Xanti ta Mirentxu

(*Xanti Mirentxurekin atzeko atetik sartzen da. Mirentxu ikastoletan aurrak izaten dituzten mantal itxi batekin*)

- XANTI Ara, ara nun dagon andre Anjela.
- ANDRE ANJELA (*Biurtu ta ikusiaz*) Mirentxu... Zer zabilta?
- XANTI (*Aurra aurrera biala naian*) Zuaz, zuaz...
- ANDRE ANJELA Ikaratzen zera? (*Juango da bera eta besotik ekarriaz*) ¡Nere biotza!... Atoz, atoz... Zer bear dezu?

XANTI Beste neskatillakin jolasian zegon eta onuntz natorrela ikusi duenean zuregana etorri nai lukela esan dit. Lekaimeak -monjak-etziyon utzi nai, bañan nik, pozik ikusiko zenduela jakini artu ta ekarri det.

ANDRE ANJELA Nola ez. Aurtxo guzien artean maitena bai det umezurtz gaxo au. Zertara zatoz, Mirentxu?... Esan ba!

MIRENTXU Gaur bezelako egun on bat urte askotan.

ANDRE ANJELA *(Musuka jan naiean)* Eskerrikasko, Mirentxu eskerrikasko. Guazen barrenera. Badaukat nik zuretzako zerbait gordea... Guazen. *(Ezkerreko atetik juaten dira)*

AMARGARREN IRUDIA

Pedro ta Xanti; gero Anjela

(Xanti juango da maiera, artuko ditu idazki kartak eta erantzuteko asmoan irakurtzen asiko da. Pedro aurreko irudi guzian eserita egon da, oldozti, burua esku batez eutsirik. Bakarrik gelditu diranean, era berean iraungo du oraindik apur batean; gero altxa ta juango da baratxako ateruntz irteteko asmoan. Atean geldituko da, biurtu ta berriro lengo lekuan eseriko da. Egon aldi txiki bat egin ondoren bat-batean altxatuko da, ta Xanti dagon mai aurrian jarriaz, eta itz labur illumaz esango dio)

PEDRO Xanti: ausarkeri aundi bat egin dezu.

XANTI Nik? Zerekin?

PEDRO Anjela'gan begiak jartzeakin.

XANTI Nork esan dizu?

PEDRO Nork?... Neronek ezagutu det.

XANTI Ez da egiya.

PEDRO Egiya da.

XANTI Ta ala balitz ere... Nor zera zu neri ezer esateko?

PEDRO Zugandik milla kana gorago nagona.

XANTI *(Txit bare)* Anjela'gandik ni bezin urruti zaudena.

PEDRO Xanti, etzazula Anjela aitatu; etzazula bere izena zure aotan artu; etzaitzela nere bidean jarri... Alde egizu arkitu nai ez banazu.

XANTI Ni betiko lekuan nago. Ikusten detanez zu etzaude zurean... Karmentxo'ren ondoan.

PEDRO Nik Anjela bakarrik nai det.

XANTI Anjela ez da ba zurea izango, nerea baizik... naiz orain arte bezela... asmoz.

PEDRO Zaude ixilik. *(Xanti altxatuko da.)*

XANTI Ni biziko naiz emen, beti emen, bere inguruan, eta beste iñorena ez dan bitartean nik nerekotzat eukiko det.

PEDRO Ixo!

XANTI Orrengatik, nik zuri aña zuk neri galerazten didazu, ta gizon bazera zuaz ta osatu zazu aspaldian emakume bati emana daukazun itza.

PEDRO *(Atzeko ate zabalean -ezkerrekoan- Anjela eskutik Mirentxu duela agertuko da; Mirentxuk besoa marama bat dakar)* Ez, zu irtengo zera... onez ala txarrez.

ANDRE ANJELA *(Entzunik Xanti ta Pedroren itzak, Mirentxu sarrerako atetik bialtzen du)* Zer gertatzen da?

XANTI ¡Ez ziñeztu!... Ni egongo naiz emen... bere inguruan... bere begietako suaz beroturik... bere naimen guziak egiñaz, ametsetan bada ere emaztetzat aitortuaz.

PEDRO Ixo, ta itz egin zagun... ¡Zuaz emendik!

XANTI Zuk nai ez arren emen ikusiko nazu, bere ondoan... berakin batean.

ANDRE ANJELA *(Aurreratuz ta samintasun aundi, bañan gogo osoaz)* Xanti.

XANTI ¡Anjela! Nere etxeoandre ta jabea.

ANDRE ANJELA Zuaz etxera... Etzaitut geiago bear.

XANTI ¡Jauna! ¡Zer egin det!

ANDRE ANJELA Zuaz... *(Juan edo ez bere buruarekin guda gogorra dauka bañan azkenik artaratzen da, ta Xanti burua makurtuta itzik esan gabe irtengo da)*

AMAIKAGARREN IRUDIA

Anjela ta Pedro

PEDRO Ondo egiña. Lotsagabe orrek irabazitako bidea darama.

ANDRE ANJELA Biotza purrkatu arren bialtzea bear bearrekoa zan. Emakume batek ezin euki lezake aldamenean orrela mintzatzen dan gizona.

PEDRO Jateko lain ez duen beartsu orrek zugan begiak jartzeakin ausarkeri aundia egin du.

ANDRE ANJELA Beartsu ta aberats berdin dira neretzat.

PEDRO *(Apalki)* Ni ere bai?

ANDRE ANJELA *(Arduratsu)*. Nai badezu gure artean lengo adiskidetasuna izatea, ta etxe ontako sarrera irikiya arkitzea ez nazazula geyago aitatu ez zure naikeririk ta ez emen gertatu danik.

PEDRO Orrenbeste, Anjela?

ANDRE ANJELA Gutxiorik ez.

PEDRO Bañan orain ez bada geroagoko... Itxaropen apur bat utziko didazu...

ANDRE ANJELA ¡Egundaño ez! Ni izango naiz beti, entzun ondo, Aizpurua'tar Juan jaunaren alarguna, ta zu izango zera... Karmentxo'ren senarra.

PEDRO Ez; alperrik zabilta. Karmentxo ez da nere emaztea izango. Ez nago ni arrentzat, zuretzat baizik. Urte abetan asko ikasi det, ez naiz umea ta jantzi apain pean badakit ezagutzen zein dan egiz emakumea, ta zein zentzun gabeko marama anderea.

ANDRE ANJELA Karmentxo zuk nai dezuna izango da. Biotz ona du, argia da, ta zuk nai dezun eran erraz eralduko dezu. Ni ere ez nitzan zuk orain arkitzen nazuna; nere senarrak egin nindun.

PEDRO Alperrik! Zu gabe ez daukat bizitzerik; zurekin bai. Emen nagon bitartean zalantzan egon arren pozik nago. Karmentxo'ren ondoan asperturik... iges egin naian... beti... beti gogo txarrez. (*Baratzako atetik, ixil-ixilik Karmentxo agertuko da. Lore sorta eder bat dakar eskuan. Pedroren atzeneko itzak entzungo ditu, ta ondoren esango dituenak*)

ANDRE ANJELA ¡Irudimenen kasketaldiak!

PEDRO Biotzaren aginduak! Eta ez daukazkit ukatzeko. ¡Zurea izango naiz, zurea bakarrik!...

AMABIGARREN IRUDIA

Lenguak eta Karmentxo

KARMENTXO (*Sartu bizji ta botako dio oñetara lore sorta esana*) ¡Zital aundia!

ANDRE ANJELA ¡E!... Karmentxo...

KARMENTXO Karmentxo bai zuri zorionak opatzera pozez zetorrena, ta atsekabez beterik oraintxen irtengo dana.

ANDRE ANJELA Ez orixen. Atoz onera.

KARMENTXO Zertara? Maite ez nauela entzutera? Zuretzako dala jakitera? ¡Ez!... Naikoa entzun det! (*Pedro eseriko da begiratu gabe ta arretarik eman gabe Karmentxoren itzai. Anjela ate aldera larri juango da, ta Karmentxo sartzeko alegiñak egingo ditu*)

ANDRE ANJELA Ez dezu dana entzun.

KARMENTXO Entzun ez dedana Xantik esan dit. Orrengatik, gaizkilleen antzera, ixilik sartu naiz. Ikusi nai banuen... ziñeztu ezin nuena...

ANDRE ANJELA Xantik nere kaltez itz egin dizu?

KARMENTXO (*Irteteko biurtua*). Orren kaltez...

PEDRO ¡Ba!

ANDRE ANJELA (*Gelditu naian*) ¡Karmentxo!

KARMENTXO (*Atetik*). ¡Zorionsu Anjela!... Besteri atsegingaia ostutzen (*Pedro erakutsia*) diona zorionsu izan al baliteke. (*Iges egingo du. Anjela alperrik dala ikusirik atearen ertzean geldituko da burua etzanda negarrez. Bitartean zapia jeisten da*)

BIGARREN EGINTZAREN AMAIA

IRUGARREN EGINTZA
BIGARREN EGINTZAKO GELA-NAGUSIA

LENENGO IRUDIA
Andre Anjela bakarrik

ANDRE ANJELA (*Idazki batzuek irakurtzen idaz-maiean eserita dago*) “...Nere biotz txaldanak eta nere buru txoroak zure aurrean lotsagarri jarri naute. Zutzaz aztutzeko, zer daukat buruan zerrautsa ez bada? Bialtzen dizkidazun diruak lotsaturik artu ditut. Nere burua purrukatu nayian etxetik irten naiz eta ¡Jaun errukitsua!, emakume gaxo beartsu batekin topo egin det. Iru aurtxo zeukazkien magalean, eta, eskua luze, bere erraietako zati aieri gosea kentzeko, txakur bat eskatzen zidan. Ikusi nuen bertan zure irudia, ta aurtxo kaxkar biurrienean nerea. Altxa azi nuen, eta esan nion nai bazuen nerekin inguruko Elizara etorri, ta an meza entzun, eta ludian zan emakumerik onen, biotz xamurren eta buru argienaren alde otoitz egin, urrezko Luis eder bat emango niola. Ez dakit beste geyagok ere entzun zidaten, bañan, berealaxen, ogeita geyo txiro, zuzen eta okerrak, aurretik beartsu aundiena, ni neroni nitzala, Jaunaren etxean sartu giñan.

Meza entzun genuen, ondoren, aots argiz zugatik arren egin genuen eta irten giñan danok alai, danok pozgiro. Txanpon batzuek danai zabaldu, laztan eta musu beroak aurtxo aieri eman, eta, asmo sendoz beterik gelditu naiz aurrerantzian, zure seme leial, zintzo ta langillea izateko.”

¡A, gizaxoa!... ¡Biotz utsa da! Asmo oiek iraungo balioke...! ¿Au izango ote da, nere senarrak eta orain nik billatzen degun eusko semea?... (*Beste idazki bat edo bi iriki eta irakurtzen ditu. Gero beste bat ikusten dubenian bat-batean jarriko da txit larri, suak artuta*)

¡Izengea! ¡Anonimua! ¡Gaur ere bai!... Zortzi egunian irul... Ta neri ezik, Apaiz jaunari, Pedro’ri ta Karmentxori. Nor da idazkipean izena jarri nai ez duen petral txarra, ta danen aurrean, nabarkeriz beterik, lotsagarri agertu nai nauena? ¡Jauna! Zer erru egin det onela gaizki nai izateko? Nor da nere kaltez dabillena? Ez al det laister jakingo? ¡Samintasunez il biar badet! (*Apur batean egon*) Zer dio...? (*ixilik irakurri ta gero*) Betikua... Nai nuen eran gauza guziak gertatu dirala. Xanti biali detala gure ixilketak ez agertzeko. Karmentxori ere itz onak esan ondoren, lau urtean izan duen senargaia atxipetu, lapurtu diotala. Nere arrokerian dabilkitan asmoa era bat osatzeko obe detala Pedro’rekin ezkondu, erritik aldendu, ta luzaro ez agertu, erria nere kaskarkeriz aztu dedin...

¡Ez!... Ez!... Nik ez det biali Xanti bestearrekin egoten galerazten zidalako. Nik ez diyot Karmentxori senargaia kendu. Ez diyot

Pedrori ez aurrerapenik eta iñongo itxaropenik eman... ¡Ez!... Gezurrak dira. Gaiztoen baten irauñ zitalak...

(Baretu apur bat ta gogaldunaz) Bañan emen gertatu diran gauzakin nola ez ziñeztu? Xanti etxean ez; Karmentxo ta Pedro asarre; onek nerekin ezkondu nai ta ni errurik gabe danen aotan... *(Maietik altxa, apur bat ibili, ta beste leku batean, aurea xamar, berriro exeriko da)* Errudun naizela... Zer diot? Ez detala biali Pedro Xanti bezela... Ez dizkatela itxi ateak arri bezela... Ta zer?... Nere ondoan norbait bear det ta, nor Pedro baño uste obeko gizona?

(Gogozko amets gozo batekin bezela poztunaz. Ezkontzako itzak esango ditu geldi-geldi ta ezitsa) Nere inguruan dagonian alaitzen naiz, bere esanak pozik entzuten dizkat, naiz askotan urrutitxo juan. Ain alai da!...

Danok egoki arkitzen dutelako, esan dute noski, ezkontzen naizela. Ta ala da, egoki da; ez bai dago ondo emakume bakarra, gazte ta aberatsa, gizonez inguratua, bat bere alde eskubide osoan agertzeko ez daukala... Karmentxori kalte egiten diotela? Ez naiz ni, bera baizik asarretu dana. Ezkondu niteke... ezkondu ondoren berriketak ixilduko dira... ta, ez badira ere urruti juango gera ta... ez ditugu entzungo... ta zoriontsu izango naiz nere senar berri... *(Altxa bat-batian itz orrek esnatuko balu bezela)* Zer diot? Beste senarra? Ezkontzeko jarriko nitzake?... *(Samin)* Biotzak bayetzera eraman nau... poztutzen zuen maitasunezko asmo zoragarriakin jolasten utzi bai diot... ¡Alperrik!... ¡Anjela! Altxa burua... begira goruntz, gogoratu zure alarguntasuna, ta daramazun izen ospetsua... ikusi emen utzi zizun lan ederra ta jarrai... *(Atsekabez purrukaturik)* ¡Jauna! ¡Zoratu bear det!... ¡Min daukat! Ta nere atsekabe ta samintasun au, gaizki nai diranen batek aunditzen dit... *(Aulkian etzanaz)* Sakontzen dit...

BIGARREN IRUDIA

Andre Anjela ta Apaiz jauna

APAIZ JAUNA *(Atzeko atetik)*. Arratsalde on.

ANDRE ANJELA Arratsalde on apaiz jauna.

APAIZ JAUNA Nola gera?

ANDRE ANJELA Berdin... Oraintxen artu det beste izengekoa. Au erotzeko bada... *(Apaizak ezpañak estutu ta ixil aldi bat)*. Ezer jakin al du?

APAIZ JAUNA Ezer ez. Xanti'enetik nator, gogor artu det, bayezkoa atera nai nion, ¡bañan alperrik!... Idazki oiek bialtzen dituen ez da Xanti.

ANDRE ANJELA Nor izan liteke ba? Ura dago asarre, nik egin diotanagatik, eta kalte egin nai dit.

- APAIZ JAUNA Ez, ez dago zure aurka, ta esango nuke zuk aña min daukala gertatzen zaizunakin. Lan-leku berri bat Donostian arkitu zuen, gaurtikan irabazibidea bazekan, bañan artzen dituzun izenge oien egillea bera ez dala erakusteagatik, danak utzi ta Ameriketara juateko buru bidea artu du... ta, okerrena da, bere aita zar gaxoa ere eramán nai duela. Anton gizarajoa nerekin etorri da, zuri bi itz egin nai dizkitzu, ta esan dit, arren, ez ukatzeko sarrera, bere semeari ukatu diozun bezela.
- ANDRE ANJELA Gizajo ori aurrean ikustea neretzako gogorra da.
- APAIZ JAUNA Izan arren, etzaiozula ukatu. (*Geldi aldia. Batetan erabakiaz*)
- ANDRE ANJELA Datorrela.
- APAIZ JAUNA Eskerrikasko. Ta zuk zer egin dezu Karmentxorekin?
- ANDRE ANJELA Ezer ez. Bitan izan naiz bere etxean bañan ez det ikusi. Gurasoak diote gaxo dagola, ta etzaiola utzi bear ñorekin izketan.
- APAIZ JAUNA Ta, berak, zer diote? Zuk errurik ez dezula, siñesten al dute?
- ANDRE ANJELA Asieran ez... Bigarren aldian juan nitzanean... bayetz, uste det. Gaur ikusi bear det; berak ere artuko zuen irugarren izengea.
- APAIZ JAUNA Artuko zuen... nik ere badet eta...
- ANDRE ANJELA (*Asarre*) Bañan, Apaiz Jauna, nor da biyotz txar, petral ori?
- APAIZ JAUNA Agertuko da, agertuko da garaiz...
- ANDRE ANJELA Nola liteke! Idazki oiek eskuz egiñak balira, agiyan; bañan makiñaz bai daude ta makiñen letra berdiña bai da...
- APAIZ JAUNA Ala izanda ere eroriko da, eroriko da... Antonen billa nijua... Zaude apurtxo bat. (*Ezkerretik irtengo da. Anjela maiera juango da ta urrutizkiñaz itz egingo du*)
- ANDRE ANJELA Probintziko... Donostiakin... ¿Donostia?... Eun da amalaugarrenarekin: Eroriko dala, eroriko dala... ¡A! ¡atzaparretan baneuka!... Zein? Zein da?... Ni? Anjela... Ondo, ondo... Ta or, nola zerate?... Alaba ere bai?... Pozten naiz... Badakizu Karmentxorekin egon bearra detala ta esaiozu ia zer ordutan juatia nai duen... Bai, itxongo det. (*Urrutizkein tresna belarritik aterata*). Gaxuak beste idazkia artuko zuen eta, nola ote dago... Pedrok gogoa altxatzen lagunduko balio... Bañan ain gogor dago... Zer?... Zer?... Bera etorriko dala?... Ez... etzaiozula laga... Ni neroni juango naiz... Ez badu nai ba... datorrela... Noiz nai... Ez det irtetzeko asmorik... Ondo da... Eskumuñak emazteari... Agur... Bera etorriko dala... Zer ote dakar?

IRUGARREN IRUDIA

Andre Anjela, Apaiz jauna ta Anton zarra

(*Anton zarra, dardaratsu, makurtu xamarra baña kemen aundikoa. Anjela ta Antonek itz egiten duten bitartean Apaiz Jauna exerita arren didazki –brebiarioa- irakurtzen egongo da*)

ANDRE ANJELA Anton, zer zabilta?

ANTON Andre Anjela... biyotza minbera ta arpegian lotsa agertzen zaidala, nator, beti itzal aundiarekin ikusi detanen aurrera.

ANDRE ANJELA Badakit Anton, eskarronekoa zerala ta nik egin dizkadan aña onen ondoren, zure semea ere, ala izango zala uste nuen.

ANTON Nere semeak burua galdu du. Aurtxo bat izan bazan zati-zati egin eta bide zuzenean jarriko nuen. Bañan... gizon egin da... ta gizonaren okerrak ez dira ain erraz zuzentzen... ¡Zugan begiak jarri!... ¡Jauna!... ¡Gure ontasun guzien emallean!...

ANDRE ANJELA Ez nago asarre orrengatik... Ori ez da obena... Ori barkatu nion. Bañan iñola ere ezin eraman detana da, orain egiten ari dan zitalkeria.

ANTON Anjela, ez... Nere semeak ez ditu egiten idazki oiek.

ANDRE ANJELA Ni orretan nago ba.

ANTON Gaizki zaude. Orain bertan artu duen buruzbidea, bera ez dala erakusteagatik da. Ameriketara dioa; gaur bertan irten nai du, ta... (*Erdi negarrez*) ni eraman nai nau. Nik ez det jua nai... Laister emen, erri maite onetan, obira jua bear duten ezur zar abek, itxas zabaluan botatzia naiko dezu? Edo iñor geiago gogoratuko ez dan erbesteko baztarren batean gelditzea?

ANDRE ANJELA Ez, Anton... Eta, zer nai dezu?

ANTON Emen gelditu... Lanerako gauza ez naiz... badakit... bañan, zer edo zer egiñaz ez al ninduzuke irukiko zure etxean... baztartxo batean...

ANDRE ANJELA (*Illun*) Nere etxean?

ANTON Ate zaitzen... baratza apurtxo bat garbitzen...

ANDRE ANJELA (*Biz̃i*). Ta emen ikusten dezun guzia semeari esaten, ta, orain bezela, aurrera ere nik egiten detana, edo ez detana zabaltzen...

ANTON (*Atsekabe aundĩz bañan tente*). Zer... Orren ezur zuritzat naukazu? Orren txartzat eta barrengetzat?... Ez... ez det ezer nai... juango naiz emendik... urruti... urruti... Gogorkeri aundia egiten dezu nere seme ta aiton zar onekin. Egun batean damutuko zaizu... Agur... Jaunak bere aurrera ots egin arte ez gera geiago ikusiko, ta orduan ikusiko dezu, Anton zarrak zer asmo zeramakien biyotzean. (*Erdi balantz̃aka, negarrak igesi egin naian, ezkerretik, atzeko ate aunditik irtengo da*)

LAUGARREN IRUDIA
Andre Anjela ta Apaiz Jauna

APAIZ JAUNA ¡Bapol!... Gizon gizarajoa ederki bota dezu.

ANDRE ANJELA Zer egin bear nuen ba? semea etxetik bota ondoren, aita sartu, orain bezela beti zalantzan bizitzeko?

APAIZ JAUNA Bañan arranua! Anton zarra zuri kalte egitera zetorrela uste al dezu?

ANDRE ANJELA Ez nuen usteko bere semea ere ariko zanik, bañan begira nola dabillen.

APAIZ JAUNA Zer agiri dezu ori esateko?

ANDRE ANJELA Pedro'k ere ala dio.

APAIZ JAUNA ¡Bai!... Norbait dala badakigu, bañan, Xanti dala, geyago jakin gabe, ezin esan zenezake. Kristotarrak ez degu orren erraz inor errudun jarri bear... bere legeak oben pean galerazten digu.

ANDRE ANJELA Bai, ala da... Bañan, esan benau nor dan, eta ez det geiago arin itz egingo.

APAIZ JAUNA ¡Emakumea! Eramanpen aundiagoa zenuela uste nuen... Bereala jakin nai al dezu?

ANDRE ANJELA Bai, bereala...

APAIZ JAUNA Jaunak nai duen arte, zalantz orretan jarraitu bear ko dezu ba.

BOSTGARREN IRUDIA

Lenguak eta Pedro

PEDRO ¡O! Laguntza onarekin dago gure Anjela.

APAIZ JAUNA Premiya dauka.

PEDRO Ez al zaigu alaitzen?

APAIZ JAUNA Alaitu?... Bai... Erotzeko zorian zegoen aitzian.

ANDRE ANJELA Ezer jakin al dezu?

PEDRO Itz bat ere ez. (*Idazki bat patrikatik ateriaz*) Beste bat artu det.

ANDRE ANJELA Nik ere bai.

APAIZ JAUNA Nik ere bai... Dana dala, langillea da.

ANDRE ANJELA Ta petral txarra.

PEDRO Onera natorrela Xanti arkitu det. Zerbait jakin nayian inguratu naiz, eta une berian bildu zaigu Anton zarra. ¡Gizajoak edana zirudien! Balantzaka, ukabillak estuturik, begiak zoro antzera, ta itzik asma eziñik, inork ezagutuko ez duen lekura jua nai duela esan digu.

APAIZ JAUNA ¡Anton gizajoa! Ta, Xanti'k, zer zion?

PEDRO Poza agertu du. Onela ez omen da, bere aita zar maitearen aldamenetik aldenduko.

APAIZ JAUNA ¡Zartzarrea laburtzia gogorra da! Nola juango da Ameriketara gizon ori?

PEDRO Beste geyagoren antzera. Ez da bakarra, ta eriotzak an edo emen berdin atxituko du.

APAIZ JAUNA An, emen baño lenago.

ANDRE ANJELA Utzi ditzagun gauza samin oiek... Elizako leyartzakin, zer egin dezu?

PEDRO Paris'ko etxe artara eskatu ditut. Ona idazkia, zuri erakutsi gabe ez nuen bota nai... Ya ondo dagon. *(Anjelak artzen dio, ta irakurtzen asten danean ikara dar-dar bat soin guzian igaroko zaio. Eramango du eskua begietara, irakurtzen asiko da berriro. Utzi, ta maiean daukan izengeko idazkia artzera juango da)*

PEDRO Beaz, apaiz jaunak uste du atsekabeak eriotza aurreratzen dutela. Ez al gera ba iltzen Jaungoikuak nai duenian?

APAIZ JAUNA Bai orixen... Bañan atsekabeak, batez ere azkeneko urteetan, eriotza aurreratzen dutela zer esanik ez dago...

PEDRO Jaunak nai duelako. *(Anjelak bitarte onetan erkatu ditu maiean bi idazkiak ta dio)*

ANDRE ANJELA Letra A zikindua... emen ere bai. O erdi ezeztua... emen ere bai...

APAIZ JAUNA Jaunak gaitz egiten uzten du, bañan iñori ez digu ematen eskubiderik, ez berari ta ez besteri gaitzik egiteko. ¡A! Egilleak, bere kaltea garaiz ez badu ordaintzen eriyotz ondoren zigor galanta izango du. Ta bere egipen txar guziak agertzen zaizkan garai artan aitzakiak alperrik izango dira. *(Anjela, apaizak bukatu baño lenago, altxako da bi idazkiak eskuan artuta ta irtengo da)*

ANDRE ANJELA Beriala nator.

SEIGARREN IRUDIA

Apaiz jauna ta Pedro

PEDRO ¡Au bai dagola errukitsua! Pozgiro ikusteagatik zernai gauza egingo nuke.

APAIZ JAUNA Nork ez... Eta ez dakit zer agindu. Txit erraza da esatea ez larritzeko, eramanpen aundiarekin artzeko; bañan nola liteke... Itz bat egundaño esan arazi ez duen emakumea, iñorekin beñere sartu ez dana, ta orain bat-batean, danen aotan, berriketa ta mar-mar zorrotz guziyak onetzaz darabizkitela... ¡Ta erru gabe! ¡Gogorra da!

PEDRO Nik uste det, onena lukela erri txiki ontatik irtetzia.

APAIZ JAUNA Ez lirake ixilduko.

PEDRO Bañan berak ez lituke entzungo orain nunai bezela. Irtetzerik al dauka, begiratu ezkelak eta aopeko marmarrak entzun gabe?

APAIZ JAUNA Badiruri, lenago goratzen beti aritzen ziranak orain nabarmenak dabiltzala. ¡A! Paulita bat or dabil goxo ez dala... “Emakume ta gizonak; gizon eta emakumeak, alkarganako griñaz josiyak, beti berdin izan ta izango dirala”. Orrela esaten dit ikusten nauen bakoitzean... eta kalean anka jarri orduko ikusten det. Ez dakit etxeratzen ere ote dan.

PEDRO Irten dedilla. Dijoala Donostira edo erbestera. Paris'ara... nik ere jua bearra badet eta alkarrekin jua gintezke.

APAIZ JAUNA Berriketari su geyago emateko? Itz bide aundiagoak jartzeko, zeok alkarrekin?

PEDRO Berriketari etzaiote jaramonik egiten. Ez gera aurak. Bai Anjelak eta bai nik, iñoren laguntza gabe badakigu ibiltzen, eta egin degun edo egin genezakenen azalpenik ez degu iñori zer emanik.

APAIZ JAUNA Ezta berriketako biderik jarri ere... Anjelak ez du ori egingo... ¡Ez!... *(Atzeneko itz oiek esateko altxatuko da)*

ZAZPIGARREN IRUDIA

Lenguak eta Andre Anjela

(Anjela, bere biotz ikara ta naigabea menpetuaz, benetasun aundiarekin sartzen da)

ANDRE ANJELA Apaiz jauna, atera bedi... Onekin bakarrik egon bearra daukat.

APAIZ JAUNA *(Arriturik)* Galerazten badet banijua.

ANDRE ANJELA Irten bedi baratzara.

APAIZ JAUNA Ez, ez, etxera nijua.

ANDRE ANJELA Ez, egon or; barrenara jua nai ez badu... Agiyan oraindik bearko det.

APAIZ JAUNA *(Baratzara juanaaz)* Paulitak diona, egiya ote da?... “Emakume ta gizonak, gizon ta emakumeak... danak berdin dirala...”

ZORTZIGARREN IRUDIA

Andre Anjela ta Pedro

ANDRE ANJELA ¡Pedro! Izengeko idazkien egillea zu zera.

PEDRO *(Arriturik bañan ukatzeko asmo sendoarekin)* Ni?

ANDRE ANJELA Apaizari, Karmentxori ta ni neroni bialtzen dituen... zu.

PEDRO ¡Anjela! Zer diozu?

ANDRE ANJELA Zu, beste iñor ez.

PEDRO *(Anjelaren begikadak menpeturikan eta ukatzeko ausardirik gabe burua makurtuaz)* Anjela, bañan ni...

ANDRE ANJELA Zu, Pedro, zu; ta ez ukatu.

PEDRO ...Egiya da... ni naiz. *(Geldi aldia. Anjelari malkuak darizkio, ezpañak estutzen ditu, baña zuzpertzzen da, ta burua altxatzen du)*

ANDRE ANJELA Pedro; ¡Txit gaizki egin dezu! Lotsagarri erri guziaren aurrean jarri nazu, biotz gogordun eta erraigea Xanti ta Anton zarrarekin... *(Oso*

geldi) Samintasun eta atsekabe neurri gabekoz beterik euki nazu zuk: maite ninduzula esaten zidazun gizonak... (*Eseritzen da*)

PEDRO

¡Anjela!... Gaiztakeri aundi ori, maite zaitudalako egin det... Zoro nago, ezer garbi ez det ikusten, buruak ez dit erakusten nik nai detan bidea... zugana eramango nauen bidea...

ANDRE ANJELA

(*Oso kementsu*) ¡Alperrik!

PEDRO

Ez zazula ori esan. Gaitz aundia egin dizudala badakit. ¡Nola ez! Etzindutan ba, samin eta beti begi eder oiek malkoz beterik ikusten! Neroni ere berdin negon, parrez agertuagatik, barrendik kixkaltzen. Zure atsekabeak nereak baño geiago samintzen ninduen. Oldesturik ordia, egun txar abek azkar igaroko zirala, ta, ondoren alegin aundiak egingo nituela, zure poz eta atsegin guziak betetzeko, lotsagarrizko bide onetan jarraitzen nuen. (*Bizitasunakin*)... Ni naiz zuri idatzi dizuna; ni, apaizari ta Karmentxori; ni, Xanti'ri errua ematen ziona; ni, urruti, Ameriketara juateko asmoak sartu dizkana, ez bai nuen inguruan ikusi ere nai.

Ura biali, Karmentxo'rekin txit asarretu, erri dana zugandik aldendu, zure egipen guziak maxiatuaz, eta onela beartu, inguruan laguntzat agertzen zan gizonarekin batutzera, ezkontzera... (*Geldi aldi labur bat, eta ondoren oso apalki*) Au da nere buru kaskar onek sumatzen zuena.

ANDRE ANJELA

(*Berezi*) Gizarajoa!

PEDRO

(*Otoile*) Orain nere erru guzia agertu ta dakizun ezker ez dala txar naiak maitasunak baizik egin arazi dizkianak, barkatuko nazula uste det... (*Ixil aldia*)

ANDRE ANJELA

¡Zorigaiztoko gizona! Zer egin dezu?

PEDRO

Ez dakit. (*Geldi aldia*)

ANDRE ANJELA

Gizonak uste dezute, bide guziak onak dirala, zuzen-zuzen zeon naietara eramaten bazaituzte. Zer zaizute zuei emakume baten omenagatik? Zer urte askoko lan onak, ibillera zuzenak, alaitu ta poztutzen duten betiko bere izen onak, zeon asmoak betetzea gatik, une batean, danak, purrukatu ta oinperatzen badituzute?

PEDRO

Zure izena len bezin garbia dago.

ANDRE ANJELA

Nork ziñeztu? Gizon adimen aundikoak izanagatik ez dezute ikusten, edo ez diozute ardurarik ematen andre gaxoari egiten diozuten kalteari.

PEDRO

Ez ori esan. Zure izen onak izpi bat ere ez du galdu.

ANDRE ANJELA

Asko galdu du, ta zugatik.

PEDRO

Ni gatik galdu badu, zure alde zer nai gauza egiteko gertu nago.

ANDRE ANJELA

Uste ori neukan... (*Geldi aldia*) ...ta lenago zeon gallurrean jartzeko zure bearra daukat.

PEDRO

Agindu... (*Ixil aldi luze samar bat; gero Anjela altxako da erakutsijaz arpegian artu duen asmo sendoa*)

ANDRE ANJELA

Garratza izango da. Bañan nigatik, zer etzenduke egingo?

PEDRO ¡Biziya eman!

ANDRE ANJELA Ez dizut orrenbeste eskatuko. Bañan bai gauza gaitza. Purrukatu bearko dituzu zure asmo ta nai guziak.

PEDRO Ta berakin biotza? ¡Ez!

ANDRE ANJELA Ez diazu ba biziya eskaintzen?... (*Pedrok burua makurtu*) Emen ezer izan ez dala garbi agertu bear da. Xanti'ren arintasun apur bat, bereala ezereztu zana. Ta zurekin... egundaño ezer ez. Eta nola ezer izan liteke... (*Kementsu ta begirada sorrots batekin*) beriala Karmentxorekin ezkontzen bazera...

PEDRO Jolasian diozu?

ANDRE ANJELA (*Apal*) ¡Jolas egun ederrak daramazkit! Zortzi egunean negarrez naukazu ta orain laño astunak urraturik argia ikusten detanean uste dezu berriro geldituko naizela kezka ta zalantzetan?

PEDRO Bañan nik zu billatzen zaitut eta ez beste inor.

ANDRE ANJELA Eta arkitu nazu, ezagutu nazu. Jakin ere bai nere asmo guziak. Aski ez dezu?

PEDRO Zuganako nere maitasuna ez da galduko.

ANDRE ANJELA Maitasun bakarrak betetzen duen biotza al dezu? ¡Maitasunak! Nik asko ditut. (*Ondoren datozen esakuntzak esango ditu geldi, argi ta biotz betez*) Maite det nere senar zan Juan ona; maite det nere alarguntasun garbia; maite det nere urko laguna ta geyago beartsua ta euskotarra bada; ta batez ere maite ditut nere Aur-jaso-etxean dauden, eta beren gurasoen maitasun apur bat gabe diran, aurtxo beartsu oiek; maite ditut urrutira bialita daukazkitan eusko gazte ikasle onak; maite det nere aberriya, orain arte ezagutu ez detan eusko aberri gaxo au; ta danen gain maite det osoro, ta onek bakarrik betetzen ditu gure biotz eta izate guziyak maitasuna ber bera dan gure Jaungoiko aundiya.

PEDRO Ikusten det neretzako biotz ortan ez dagola lekurik.

ANDRE ANJELA Lekua bai. Maitasun oiek ez dute beste geyago izaterik galerazten. Bañan zuk nai dezunari ez bai diot emango lekurik.

PEDRO ¡Gutxi naiz!

ANDRE ANJELA Asko zera. Daramazun maitasuna beste lekura zuzendu zazu. Gazte bat zoriontsu egingo dezu, ta zeori ere bai; besteri egiten diogun ona geronen gain biurtzen dalako. (*Karmentxo baratzan, Apaizarekin izketan entzuten da*)

APAIZ JAUNA (*Barrenen*) Pedro'rekin dago aspaldian.

KARMENTXO Eskerrikasko, Apaiz jauna.

PEDRO (*Txit larri, igaz egin naian*) Karmentxo dator; banijua.

ANDRE ANJELA Etzera juango... Geldi emen. (*Pedro'k ezkerreko atetik irten naiko du, bañan, Anjela'k galeraziko dio bere aurrean pizkor jarriaz*)

BEDERATZIGARREN IRUDIA

Lengoak eta Karmentxo

- KARMENTXO (*Atzean gelditua*) ¡Orain ere alkarrekin!
ANDRE ANJELA (*Oso adoretzu, bere gana juana*) Karmentxo: sartu aurrera. Zu gaur emen ikusteakin poz aundi bat det. Zure etxera juan banitzan, ez nuen jakingo orain esan biar dizutan berri pozgarri bat.
- KARMENTXO Berri ona ¿ta neretzat?
ANDRE ANJELA Zuretzat... Ez arritu... Gertatu bear zana da.
KARMENTXO Ez det ulertzen...
ANDRE ANJELA (*Itzak kalkatua eta geldirik*) Pedro etorri zait esatera datorren illean zurekin ezkontzen dala...
- KARMENTXO ¡Pedro!
PEDRO ¡Jauna!...
ANDRE ANJELA Ta amandria, ni izatia nai duela... Ez da ala Pedro? (*Begiratu zorrotz eta otoile bat egiñaz Pedro'k ezetz esan nai luke bañan Anjela'k beartzen du, ta esaten du apalki*)
- PEDRO Bai...
KARMENTXO (*Aurrena Pedro'ren gana juan eta bi eskuetatik eldu; ondoren Anjela gana ta musu eman, ta gero Apaizari, baratzako atetik, ots egin. Dana bizji, pozez eta atsegiñez zoraturik*) ¡Pedro! ¡Zer poza!... ¡Anjela!... ¡Apaiz jauna!... ¡Apaiz jauna!
- ANDRE ANJELA Begira maite zaituen... Egin zazu zoriontsu, ona da ta...
PEDRO Egia diozu.

AMARGARREN IRUDIA

Lengoak eta Apaiz jauna

- APAIZ JAUNA Zer da? Zer da?
KARMENTXO Berriketak zirala danak... Pedro'kin ezkontzen naiz.
APAIZ JAUNA Noiz?
ANDRE ANJELA Datorren illean, bere egunean.
APAIZ JAUNA Egia al da, Pedro?
PEDRO Bai.
ANDRE ANJELA Ni biyar bertan irtengo naiz erbestera. Nere Andres'ek Paris'en norbaiten bearra daukala uste det, eta neronek lagunduko diot. Ezkontza izango da emen, Karmentxo'k galerazten ez badigu.
- APAIZ JAUNA Ta ezkonduko ditut, nik.
KARMENTXO Nola ez?
ANDRE ANJELA Dana antolatzer a egun batzuek lenago etorriko naiz; ta uste det ordurako ixilduko dirala berriketa guziyak.
APAIZ JAUNA Ta, baita, aspertu ere izengeko idazkiak bialtzen ari dana.

ANDRE ANJELA Ez, ez da geyago izango. Pedro'k... eta nik arkitu degu egillea.
 APAIZ JAUNA Xanti al zan?
 ANDRE ANJELA Ez; eta oraintxen gogoratzen naizela, gizajo orrekin eta bere aita zarrarekin beriala egon bear det. ¡Poztuko ditut!
 APAIZ JAUNA Neronek ekarriko ditut. (*Pedro'ri*) ¡A! ta Paulita arkitzen badet entzun bear dit... "Gizon eta emakumeak..." ¡Ja!... ¡ja!... (*Baratza aldetik aurtxo baten karrasia entzuten da*)
 ANDRE ANJELA Zer da? Nere Mirentxu negarrez?
 APAIZ JAUNA (*Baratza aldera juana*) Mirentxu da. Or zebillen matrakakerian Pedrotxo'kin eta min artuko zuen. (*Anjela pizkor irteten da*) Agur... Beaz... gizon eta emakumeak, emakume eta gizonak... beti berdin... ¡Ja, ja! (*Azkeneko itz abek berez esana*) juango da baratzaako atetik)
 KARMENTXO ¡Pedro! Anjela'kin ez nitzan aizkide, ta aitzian berriro alkarrekin ikusi zaituztetanian asarre jarri naiz. Bañan... etzan ezer... nere ezpa batzuek... besterik ez.
 PEDRO Maite zazu Anjela. Gaurko poz eta atsegin guzia ari zor diozu.
 KARMENTXO Gaurkoa bakarrik?
 PEDRO Ondorengoa ez bai dago aren gain, gure gain baizik. (*Laztanten dira. Pedro'ke Karmentxori eskuan musu ematen dio. Anjela Mirentxukin atean agertuko da, ikusiko ditu ta malke bat legortuko du*)

AMAIKAGARREN IRUDIA

Andre Anjela, Pedro, Karmentxo ta Mirentxu

KARMENTXO ¡Zoriontsu izango gera!
 ANDRE ANJELA (*Berez*) ¡Bai, zoriontsu izango zerate! (*Aurrean dagon alki batera juango da exeritzera, Mirentxu magalean artuko du ta an besarkada*) estutua ta muxuka jan nayian itzegingo dio) Mirentxu, gaxoa, zer dezu?
 MIRENTXU Min det...
 ANDRE ANJELA Nork egin dizu?
 MIRENTXU Pedrotxo'k... (*Inguratzen dira Karmen ta Pedro*)
 KARMENTXO ¡Odola dauka!
 ANDRE ANJELA ¡Odola....!
 PEDRO Ez da ezer...
 ANDRE ANJELA (*Samin*) Zubentzako, beñere ez da ezer. (*musu-zapiz igurtzia*) kopeteko xauria ta musuka jan nayian) Nik sendatuko diot... nik, bakarrik... Zuazte, zuazte zuek... (*Biok atzeratzen dira alkarri esku emanaz*)
 ¡Odola!... Neri, ere, Pedro'k odola egin dit... asko... asko... barren barrenen... Bañan, barkatzen diot... ¡MAITE BAI DET!

(*Illunabarra da, ta irudi au bukatzerako antzokia illun samar egongo da*)

(Ez^ƙuta-ƙaƙiƙi jeisten da)

AMAYA